

JARDUERA-PLANA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

[Instalazio eta Makina Termikoak]

[Ingeniaritza Mekanikoko Gradua]

[2020/04/18]

Irakasgaiaren koordinatzailea
[Inmaculada Tazo]

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko deialdia: orientabideak
5. Ezohiko deialdia: orientabideak
6. Berrikuspenak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Atal honetan, 22. astetik ikasturtearen amaierara arte garatuko diren eduki teoriko-praktikoak jasoko dira, gaur egungo irakaskuntza ez-presentzialaren egoera kontuan hartuta.

5. gaia: Ur-lurrunaren instalazioak.
6. gaia: Kogenerazio eta Ziklo konbinatuko instalazioak.
7. gaia: Gas-turbinak.
8. gaia. Hozteko zikloak.
9. gaia. Aire girotua eta girotzeko sistemak.
10. gaia. Energia berriztagarriak.

2. METODOLOGIA

Ikasgaia astero garatzen da: 2 ordu magistraletan (M), 1 ordu ikasgelako praktketan (GA) eta 1 ordu ordenagailuko praktketan (GO).

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Ikasleekin komunikatzeko eta fitxategiak elkarri trukatzeko eGela erabiltzen da plataforma gisa, Blackboard Colaborative (bbc), Foro, Galdetegiak eta abarren tresnekin.

Ikasleen eskura daude: teoria, klase magistraletan erabili beharreko aurkezpenak, erreferentziarako bibliografia, gai bakoitzean ebatzitako ariketak eta proposatutako ariketak. Honako metodologia hau erabiliko da: Alderantzizko Gela, Tareak online eta bbc 5., 7., 8. eta 9. gaietarako. Beste aldetik, 6. eta 10. gaietarako ABP metodoa erabiltzen da.

Astero ikasleei bidaltzen zaie (ikasgaiaren eGelako foroa erabiliz) aste horretan egin beharreko jardueren plana, irakurri behar duten dokumentazioarekin, eredu gisa balio duten ebatzitako eta azaldutako ariketekin, garatu behar dituzten ariketekin/jarduerekin eta ikasleek aurreko asteen egindako zalantza guztien laburpenarekin

2.2. LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

Ordenagailuko praktikak aurreikusita zegoen bezala egingo dira, eta ikasleek VPN konexioaren bidez egin ahal izango dituzte EES softwarearekin proposatutako arazoak.

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Irakaskuntza presentzian aurreikusitako sistema honako hau zen:

Egin beharreko idatzizko proba:% 30

Probak egitea:% 40

Talde-lana:% 30.

Irakaskuntza ez-presentzialaren kasuan, ehunekoak aldatuko dira:

Probak egitea:% 70

Talde-lana:% 30

4. OHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

- 1- Tareak eta entregatzekoak, guztizkoaren% 40ko balorazio bateratua izango dutenak.
 - 2- Ordenagailu-programen bidez problemak ebaztea; guztizkoaren% 30eko balorazioa izango du.
 - 3- Talde-lanak:% 30
- Ikasleak ariketa guztiak entregatu beharko ditu.

5. EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

Ez ohiko deialdia modu presentzian izango balitz, Irakaskuntza-gidan agertzen diren jarraibideak egingo lirateke:

Azterketa hau horrelakoa izango da:

1. Irakasgaiaren materia osoari buruzko azterketa teoriko-praktikoa, kalifikazioa osoaren %85 izango da. Azterketa ariketa praktikoz eta teoriaz, garatzeko galderak edota galdera motzak edo test modukoak, osatuta izango da. Ikasleak 10 puntuetatik 5 puntu lortu beharko ditu informatikako ariketa egin ahal izateko.
2. Informatikako gela batean software baten bidez ariketak ebatzi, kalifikazioa osoaren %15 izango da.

Modu presentzian egitea ezinezkoa izango balitz, ikasleak ebaluazio jarraituan entregatutako tarei baliokideak izango diren tareak entregatu beharko lituzke, lan-taldeak izan ezik. Balorazioa, horrela geratuko da:

- 1- Tareak eta entregatzekoak, guztizkoaren% 70ko balorazio bateratua izango dutenak.
- 2- Ordenagailu-programen bidez problemak ebaztea; guztizkoaren% 30eko balorazioa izango du.

6. BERRIKUSPENAK

Ohiko eta ezohiko deialdiko berrikuspenak Blackboard Collaborate Ultra baliabidea bidez egingo da GAUR baliabidean jarritako datan.